

PAPEREZKO HEGAZKINAK



UNITATE DIDAKTIKOAREN GIDOIA



PELIKULA IKUSTERA JOAN AURRETIK IRAKASLEAK EGITEKO LANA

Fitxa teknikoa
Sinopsia
Proposamen
didaktiko hau
lantzeko aholku
metodologikoak



PELIKULA IKUSTERA JOAN AURRETIK IKASLEEKIN EGITEKO LANA

Filmaren azala eta
izenburutik abiatuta
elkarriktarako gida
Haurren Eskubideen
Deklarazio
Unibertsalari errepasoa



PELIKULA IKUSI ONDOREN IKASGELAN EGITEKO LANA

Pelikula hitz batean
Pertsonaien deskribapena
Gidoiari buruz
Elkarrikteta sustatzeko
proposamenak:
Familia / Pertsonen
arteko harremanak /
Lehiakortasuna
Ariketa: Paperezko
hegazkina egin
Aerogami Jaialdia
antolatu



**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IRAKASLEAK
EGITEKO LANA**

FITXA TEKNIKOA

Izenburua: Paperezko hegazkinak

Izenburu originala: Paper Planes

Herrialdea: Australia

Estreinaldia Espainian: 2016/01/01

Estreinaldia Australian: 2015/01/15

Ekoizlea: Arenamedia

Banatzailea: Roadshow Films

Banatzailea Espainian: Flins & Pinículas

Zuzendaria: Robert Connolly

Gidoilaria: Robert Connolly, Steve Worland

Antzezleak: Sam Worthington, Ed Oxenbould, Deborah Mailman, Nicholas Bakopoulos-Cooke, Ena Imai, Terry Norris, Peter Rowsthorn, Julian Dennison, David Wenham, Shane Adamczak, Fiona Blakely, Commander Bo

Kalifikazioa: Publiko guztiarentzako egokia

SINOPSIA

Benetako gertakarietan oinarrituta, kritikak babestua eta saritua, **hamaika urteko Dylan** gaztearen istorioa kontatzen du film honek. Australian bizi da **aitarekin**, eta azken horrek **ez du gaingitu emaztearen heriotza**, beraz, ez da gai semearekin erlazionatzeko aurretik egiten zuen bezala. Dylanek grina handia du hegan egiten duen ororekiko, eta erabakiko du paperezko abioien hegaldia praktikan jartzen hastea, **IRAKASLE BATI ESKER. Amesteko gaitasunak eta aitari laguntzeko irrikak** *Paperezko hegazkinak* filma istorio zirraragarria bilakatzen dute; kemena eta adorea nagusi izango dira, eta amaieran Dylanen amets handia egia bilakatuko da.






**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IRAKASLEAK
EGITEKO LANA**

**PROPOSAMEN DIDAKTIKO HAU LANTZEKO
AHOLKU METODOLOGIKOAK**

Proposatzen dugun eredu metodologikoak gaitasun intelektuala eta kontzientzia soziala garatzea du oinarri. Ikaslearen ezagutza, sinesmenak, aurreiritziak eta izandako bizipenak izango dira abiapuntu, modu horretan, haien interes eta beharrekine konektatuko baitugu, baina urrats bat gehiago ere emango dugu: ikaskuntza berriak barneratu.

Aurrera pausu horiek ikasleek beraiek egingo dituzte taldean elkarrekin ikertuz, eta horixe izango da, hain zuzen, programa honen ezaugarri adierazgarriena, irakasleak ez baitie ezagutza zehatzik irakatsiko. Elkarrekin hausnartu, pentsatu eta hitz egin beharko dute taldearen ondorioak formulatu eta osatzeko. Irakaslearen lana taldea bideratzea izango da, elkarrikteta horiek gerta daitezen beharrezko baldintzak ahalbidetzea.

Horretarako, honako orrialde hauetan, hainbat baliabide eskaintzen ditugu ikasgelan elkarrikteta parte-hartzailea eragiteko, eta zenbait galdera irakasleak elkarrikteta sustatzeko eta gidatzeko balia ditzan. Esan beharrik ez dago, irakasle bakoitzak erabakiko duela horietako zein erabili, zein ez edota baten bat erantsi nahi ote duen. Jarduera errazteko galderen zerrenda bat aurkeztzen dizuegu, ikasgelan elkarrikteta arakatzaila sustatzeko baliagarri gerta daitekeena:





**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IRAKASLEAK
EGITEKO LANA**



ARAKATU

Nola jakin dezakegu...?
Nola bila dezakegu...?

HIPOTESIAK FORMULATU

Zer azalpen izan dezake honako honek?
Zer gertatuko litzateke baldin eta...?

BESTE BIDE BATZUK BILATU

Zer beste modutan azal dezakegu...?
Zeini bururatzen zaio beste konponbide bat?

DEFINITU

Hitz hori erabiltzen duzunean, zer esan nahi duzu?

PAREKOTASUNAK ETA DESBERDINTASUNAK BILATU

Zer dute amankomunean...?

SAILKATU

Zenbat modutan sailka dezakegu?

ARRAZOIAK ESKATU

Zer arrazoi duzu honako hori esateko?

ONDORIOAK ATERA

Baieztapen hori egia bada, zer ondoriozta dezakegu?

KAUSAK ETA ONDORIOAK ERLAZIONATU

Hori gertatzen denean, zein dira ondorioak?

HITZEZKOA EZ DEN HIZKUNTZATIK HITZEZKORA ITZULI

Zer adierazi nahi du keinu horrek?

LABURTU

Hitz gutxitan azal dezakezu...?

Metodologia-proposamen zehatz honek elkarriketa du oinarri beraz; azken batean, etika biziaren trebakuntza bat da. Bizikidetzarako, pertsonen arteko errespeturako eta garapen intelektualerako beharrezko prozedurak eta jarrerak martxan jartzen dira. Era ordenatu eta sistematikoan hitz egiteak lagunduko du elkarriketa modu eraikitzailean erabiltzeko ohitura hartzen. Elkarriketa batean, beste pertsonaren iritzia eta hitz egiteko txanda errespetatzen dugu, eta entzuteko gaitasuna eta pazientzia trebatzen ditugu. Honez gain, gure iritziak argudiatzen eta gure kideek zer pentsatzen duten hobeto eta sakonago ikasten dugu; modu horretan, errazago zaigu haiek ulertzea eta haiekin enpatizatzea.



2

**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK
IKASLEEKIN
EGITEKO LANA**

**FILMAREN AZALA ETA
IZENBURUTIK ABIATUTA
ELKARRIZKETARAKO GIDA**

"Paper planers" Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian ipiniko dute eta bertara joango gara filma ikustera. Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Sailak eta Donostia Kulturak antolatzen dute jaialdia.

- 1. Zer dakigu pelikula honi buruz?
Aurretik zerbait entzun dugu?**
- 2. Zein da pelikulako zuzendaria?
Eta, aktoreak? Ezagunak egiten
zaizkizue, batez ere Jack, Dylanen
Aita (Sam Worthington)?**
- 3. Pelikulako horma-iruditik abiatuta
(hizkiak, irudiak, koloreak,
pertsonak...), zer hipotesi egin
dezakezu bertan gertatuko denari
buruz?**



**GIZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO
UNIBERTSALARI ERREPASOA**

Zinemaldiaren egitarauan urteko giza eskubideekin lotutako labur eta film luze batzuk biltzen dira. Helburua, hiritarren artean bake eta bizikidetzaren kultura zabaltzea da tolerantziaren, elkartasunaren, errespetuaren, aniztasunaren eta gizarte kohesioaren pedagogia eginaz.

Garrantzitsua da neska-mutilak jabetzea Giza Eskubideak ezinbestekoak direla komunitate eta pertsonen arteko harreman egonkorak eta orekatuak finkatzeko eta honetarako nahitaezkoa da hauen ezagutza izatea. Ariketa honetan, Nazio Batuek 1948an aldarrikatu zuten Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala bilatu eta artikulua errepasatuko ditugu. Ikasleei pelikulak zer eskubide edo eskubideei buruz hitz egiten duen pentsatzeko mandatua emango diegu.



**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**

PELIKULA HITZ BATEAN

Biribilean eserita irakasleak pelikula zer iruditu zaien galdetuko du eta partaide bakoitzak **hitz bat** erabiliz erantzun beharko du. Ikasleen adinaren arabera, ariketa baino lehen eta laguntza modura, arbelean adjektiboen zerrenda egin dezakegu guztion artean.



PERTSONAIEN DESKRIBAPENA

Biribilean eserita jarraituko dugu. Ikasleei pelikulako pertsonaiak eta pertsonaia nagusiak zein diren galdetuko diegu eta arbelean zerrenda osatuko dugu.

- Nolakoak dira pelikula hasieran eta bukaeran?
- Beraien izaera zerbaitetan aldatu da?
- Zerk egiten die aldatzea?



DYLAN

JACK, DYLANEN AITA

DYLANEN AITONA

**DYLANEN MATEMATIKAKO
IRAKASLEA**

KEVIN, DYLANEN LAGUNA

KINI

MAUREEN PRESCOT
*Lehiaketako aurkezlea eta
garai bateko irabazlea*

JASON

SR. JONES
Jasonen aita

Hasieran	Bukaeran	Izaeran aldaketak?



- Zer balore eta sentimendu lotuko zenizkioke pertsonaia bakoitzari?
Bat baino gehiago izan daitezke. Zerrendan ez egon arren egokiak iruditzen zaizkizuenak gehitu.

1. Kiroltasuna

2. Laguntasuna

3. Errukia / enpatia

4. Lehiakortasuna

5. Berekoikeria edo egoismoa

6. Eskuzabaltasuna

7. Zintzotasuna

8. Sinpatia

9. Inbidia

10. Alaitasuna

11. Ontasuna

12. Adiskidetasuna

13. Tristura

14. Galeragatik duelua



**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**

GIDOIARI BURUZ

Irakasleak ondorengo galderak egin ditzake:

1. Zeintzuk dira zuen ustez pelikulak lantzen dituen gai nagusiak?

2. Zein izan da gehien gustatu zaizuen eszena? Zergatik?

Ikasleek bigarren galderari ematen dizkioten erantzunen arabera, taldean, guztion artean gai horiei buruz hitz egiten joango gara. Irakaslea galderak proposatuz joango da elkarrizketa sortu eta gidatzeko. Jarraian, familia, pertsonen arteko harremanak eta lehiakortasuna kontzeptuei buruz taldean hausnarketa egiteko proposamenak aurkezten ditugu:



ELKARRIZKETA SUSTATZEKO PROPOSAMENAK

Familiako harremanak

Dylan eta Jack, bere aita

- Nolako harremana dute?
- Zer lortu nahi du Dylanek aitarengandik?
- Zer portaera du Dylanek? Arduratsua da?
- Lortzen al du Dylanek aitari laguntzea?

Aitona hegazkinlaria eta Dylan

- Zer ekarpen egiten dio Dylan aitona hegazkinlariak? Eta Dylanek aitonari?
- Zein dira beharrezko osagaiak norbait familiakotzat jotzeko?

Jason eta Sr. Jones aita

- Nola sentitzen da Jason?
- Zer jarrera du Jasonek?
- Zer harreman dute aita eta semeak?
- Erraza da aita irabazle bat edukitzea?
- Nolakoa izan nahi du Jasonek?
- Zer eredu mota da Sr. Jones semearentzat?

3 irabazleen eta garai bateko irabazlearen jarrerak aztertu:

- Dylan eta Jason
- Kimi eta Maureen
- Garrantzitsua da irabaztea?
- Garrantzitsua da nola irabazten den?



3

**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**

Pelikulako elkarrizketak komentatu:

Zer iritzi duzue pertsonaia hauek egiten dituzten adierazpenen inguruan?

Esaten duzu irabaztea ez dela garrantzitsua?

Irabazleek garaipena ospatu dute 20 urteren ostean.

Ziur zaude ez dudala ulertzen?

A

Ez. Esaten dut bidea ere badela garrantzitsua.

Ez duzu ulertzen, Jason.



JASON



DYLAN

SR. JONES
Jasonen Aita

B

Naturari begiratu behar zaio bizitzako erronkak gainditzeko.

Zoragarri izango litzatekeela ez irabaztea urrutien heltzen denak, bizitzarako zerbait ederra eta liluragarria egiten duenak baizik?



C

Hegazkin bat hegan jartzen dudanean, ahaztu egiten zait... hemen nagoenik ere.



KIMI



3


**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**

**Ariketa:
ORIGAMI ETA AEROGAMI**


Egin zure paperezko hegazkina




1




2




3




4



5



6



7

www.paperaeroplanes.com <https://youtu.be/nZGcl1VC4PU> <https://youtu.be/AljTDb2cyhc>

Zer iruditzen zaizue gelako kideen artean paperezko hegazkin jaialdi bat antolatzea?
Zaragozan, Japonian,... horrelako jaialdiak antolatzen dira. Non gehiago? Bilatu informazioa sarean.